



AMAIA ZABALO

**Langile bat hil da Oiartzunen, gidatzen ari zen hormigoi-makinaren zisterna lehertu ostean.** Hormigoi-makina baten gidaria hil zen atzo Oiartzunen, gidatzen ari zen ibilgailuaren zisterna gehiegizko presioagatik lehertu zenean. Gertakaria goizaldeko 02:20ean jazo zen, Ugaldetxo auzoan. Hila J.M.V.G. irundarra da, 36 urtekoa. Gidaria larri zauritu zen eta ambulanzia etorri zenerako hilda zegoen.

## Lan istripuak saihesteko neurri gehiago aldarrikatu dituzte ELA eta LABek

*Enpresariei eta Administrazioari egotzi diete egungo egoera «kezkarria»*

Erredakzioa / Donostia

**ELA eta LAB sindikatuak hainbat delegatu Confebask eta Bizkaiko Lan Ikuskaritzaren aurrean bildu ziren atzo lan istripuen aurka protesta egiteko. Egungo egoera «kezkarritzat» jo zuten bi sindikatuok eta egoera hori saihesteko behar diren neurriak har ditzatela eskatu zieten Administrazio eta enpresariei.**

URTETIK URTERA izandako lan ezbeharren kopuruaren gorakadaz kezkatuak azaldu ziren atzo ELA eta LAB sindikatuak. *Lan istripu gehiagorik ez lema* zuen pankartaren atzean bildu ziren sindikatuak ordezkariek, atzo, Confebask eta Lan Ikuskaritzak Bizkaian duten eraikinen aurrean. Han izan ziren Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusia eta Txutxi Ariznabarreta LABeko Komunikazio arduraduna.

Aurten ehundik gora dira Hego Euskal Herriko lantokietan hildako pertsonak eta horietatik bost azken asteotan jazotako istripuetan hil dira. Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo hamar hilabeteetan 75 pertsona hil ziren lan ezbeharretan eta 39.126 istripu gertatu ziren lantegietan. Nafarroan, berriz, lehenengo bederatzi hilabeteetan 14

ziren hildako langileak eta 9.979 lan istripu izan ziren, Nafarroako Lan Segurtasunerako Institutu Nazionalak jakinarazi zuenez.

Kontzentrazioan, Jose Elorrietak aste hau «estatistika aldetik txarra» izan dela adierazi zuen. ELAko buruak enpresariei leporatu zien lan

segurtasun eza. Dei egin zien prebentzio plan bat martxan jar dezaten eta horren jarraipena egin dezaten.

Aldi berean, segurtasun planak betetzeko «ikuskaritzan aktiboagoa» izateko galdedin zion Administrazioari.

### «Legeak ez dira betetzen»

Elorrietaren salaketarekin bat egin zuen Txutxi Ariznabarretak. Izan ere, LABeko ordezkariek iritziz, gaur egungo legea «ez da nahikoa» eta dagoena ez dela «betetzen» gaineratu zuen. Hala, dei egin zien alderdi politikoei

lege berriak onar ditzaten. Egoera «onartezintzat» jo zuen; «prekaritate handiagoa dagoelako eta horrek eragina duelako lan istripuetan. Ezbehar horiek izateko baldintzak jartzen dira», adierazi zuen.

LABeko ordezkariek gaineratu zuenez, «hildakoez hitz egin beharrean eraildakoez hitz egitera pasatuko gara hemendik aurrera».

Egoera horri aurre egiteko, urtariletik aurrera, ELA eta LAB sindikatuak «ofentsiba sindikal zuzenagoa» hasiko dutela iragarri zuten, betiere prebentzio planak bete daitezzen eskatzeko.

**Adegik positibotzat jo du urte hau, eta hurrengo ere ona izango dela dio, etekinak murriztu egingo diren arren**

■ 1999ko Gipuzkoako Koiuntura Ekonomikoaren Txostena aurkeztu du

Europa Press / Iruñea

ADEGI Gipuzkoako Enpresarioen Elkarteak bukatzean dagoen urtea enpresariarentzat ona izan dela ondorioztatu du Koiuntura Ekonomikoari buruzko bere Txostenean. Jose Maria Ruiz Urtxegi idazkari nagusiaren arabera, balorazioa are positiboagoa da aurreko bi urteak bikainak izan zirela kontuan hartzen bada.

Urte honetako lehen zatian EAEko hazkunde ekonomikoa geldotu egin da txostenaren arabera, EAEko Industria Produktzio Indizea %1,4koa izanik urtariletik urrira bitartean, aurreko urtean epe berean indizea %8,7koa baitzen. Hala ere, Gipuzkoa EAEko batez bestekoa baino gehiago hazi zen industria alorrean, %2,7ko tasarekin.

2000. urtea ere ona izango dela uste du Adegik, nahiz eta enpresen etekin marginak murriztu egingo diren. Elkartearen arabera, beharrezko litzateke administrazioek Elkartearen gaineko Zerga murriztea —Alemanian egin den moduan—, Gizarte Segurantzako kotizazioa jaistea, kontratu egonkorra bultzatzea eta inflazioa kontrolatzea.

Ruiz Urtxegiren arabera, kezkatzekoa da enpresen langile espezializatuak lortzeko zailtasunak izatea. Horrek formazio sistemarentzat erronka izan behar duela azaldu zuen.

### Egunkariak

**BANATZAILEA**  
behar du Donostian.

**LAN BALDINTZAK:**

- Egunean 3 ordu.
- Goizeko 4:00etatik 8:00etara.
- Astean sei egun, asteartetik igandera.

**Ezinbestekoa da autoa edo motorra izatea.**

*Astelehena edo astearte bitartean  
deitu 943-300222 telefonora.*

### Egunkariak

**BANATZAILEA**  
behar du Hernanin.

**LAN BALDINTZAK:**

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 4:00etatik 7:00etara.
- Astean sei egun, asteartetik igandera.

**Ezinbestekoa da autoa edo motorra izatea.**

*Astelehena edo astearte bitartean  
deitu 943-300222 telefonora.*